

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



UDALA

Santa Barbarako harrobiari buruz, partehartze prozesua

Bukatutzat eman ditu Hernaniko Udalak, Santa Barbarako harrobiaren betelanak. Eta orain, aisialdi gune bihurtu nahi du. Horretarako, prozesu partehartzailea jarriko du martxan, herritarrek erabaki dezaten nolakoa izango den eta zein jarduera izango dituen gune horrek. Partehartze prozesuaren nondik norakoak azaltzeko, aurkezpen irekia egingo dute bihar, arratsaldeko 19:00etan, udaletxeko areto nagusian. ||

NIKARAGUA

«Nikaraguak biziko duen garaipen berria ospatzeko», ekitaldi politikoa Tilosetan

Eguerdiko 12:30etan jarri du zita, Nikaraguaren Aldeko Euskal Ekimenak, eta bertaratzeko deia luzatu die herritarrei: «gora Nikaragua Sandinista! Atzo, gaur eta beti!», aldarrikatu du.

NIKARAGUAK egun hauetan bizi duen egoeraren harira, ekitaldi politikoa antolatu du gaur, eguerdiko 12:30etan Tilosetan, Nikaraguaren Aldeko Euskal Ekimenak: «Herri Iraultza Sandinistaren garaipenaren 39garren urteurrena ospatzen dugun honetan, Tilosetara gerturatzeko deia luzatzen dizuegu. Nikaraguar herriak, Fronte Sandinistaren gidaritzapean, inperialismoaren hatzaparretatik ihes egitea lortu du; eta horregatik, Tilosetan, Sandinoren euskal seme-alabek aurrez ospatuko dugu, festa giro iraultzailean, Nikaraguak biziko duen garaipen berria», adierazi dute.

Bertan, omenaldia egingo diete, Fronte Sandinistarekin batera borrokatu zutenei, eta aurreratu dute, bakearen alde lan egiten jarraituko dutela: «gora Nikaragua Sandinista! Atzo, gaur eta beti!». ||



Lehenago ere egin dituzte ekintzak, Tilosetan, Herri Iraultza Sandinistaren garaipena ospatzeko. Argazkian, 2014an jarri zuten erakusketa, garaipenaren 35garren urteurrenean.

Ezohiko plenoa asteartean, lau puntu lantzeko

Ezohiko pleno deialdia egin du Hernaniko Udalak, astearterako. Arratsaldeko 19:00etan izango da, udaletxeko pleno aretoan, eta lau puntu landuko dituzte. Aurrenekoan, azkeneko hiru plenoetako aktak onartuko dituzte; gero, ekaina eta uztaileko dekretuen berri emango dute; ondoren, aparkaleku zerbitzuaren ordenantzen aldaketa eztabaidatuko dute; eta azkenik, Orain Hernanik aurkeztutako mozioa, palestinar herritarren eskubideen aldekoa. ||

HERNANIKO SARE

Bat egiteko deia gaur, bizikleta martxarekin

Mont de Marsanetik abiatu eta Zaballaraino, presoen aldeko bizikleta martxa ari dira osatzen, Sarek antolatuta. Ostiralean hasi zuten, eta lau etapa izango dira; hirugarrena gaur, Donostiatik Altsasura. Eta Hernanitik pasako ez bada ere, martxarekin bat egiteko deia luzatu du Hernaniko Sarek, gaurko. Horretarako, goizeko 09:30etan jarri dute zita, Lasarte-Orian, Atsobakar zaharren egoitzaren aurreko autobus geltokian. Herria zeharkatuko dute bizikletan, eta nahi duenak, aurrera ere jarraitu dezake. Zizurkilen, ekitaldia izango da 11:00etan. ||

ARRAUNA

‘Maialen’ seigarren berriro, Orioko estropadan

Joan den asteburuan baino urrutixeago izan zituen aurrekoak, baina atzetik utzi zituen Lea Artibai, Lapurdi eta Colindres, beste behin. Gaur, 15:30etan ariko dira Pasai San Pedron, erlojupekoan.

SEIGARREN postuan finkatu da Hernaniko Maialen trainerua, ETE ligan; eta beste posturen bat aurreratzeko ari da lanean. Atzokoan ere, seigarren izan ziren hernaniarrak, Orioko estropadan. Eta aurrekoak joan den asteburuan baino urrutixeago izan bazituzten ere, ez

ziren alde haundiegirik atera bosgarrenak, Tolosaldeak: 12 segundu azkarrago aritu ziren tolosarrak, atzokoan.

Orain arteko estropada gutzietan bezala, atzetik utzi zuten Lea Artibai, Lapurdi eta Colindres. Bere txandan bigarren izan zen Hernani, eta nahi

baino urrutiago izan zuen Kaiuku, 36 segundura; hasieratik ireki zuten tartea bizkaitarrek, eta ziabogara iristerako, 21 segundu aurretik ziren.

Pasai San Pedron, gaur ETE ligako hirugarren estropada zuten atzokoa, eta gaur ber-

tan izango dute laugarrena. Erlojuaren kontrako proban ariko dira, Pasai San Pedron, arratsaldeko 15:30etan hasita; Erreterria Hiria bandera izango dute jokoan. Abiatzen laugarren trainerua izango da Maialen, sailkapeneko ordenaren arabera, atzekoz aurrera. ||

Kronika egunero euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko,
Kronikalari gehiago behar dira

ABANTAILAK

1. Errenta aitortzearen dedukzioa.
2. Deskontuak: aurrez zehaztutako ekitaldietan.
3. Zozketak: aurrerantzean Kronikalarien artean.

EGIN KRONIKALARI

943 33 08 99
kronika@kronika.eus

Urtean
25€

Tripontzi jatetxea

**PINTXOAK
RAZIOAK
ENTZALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOA**

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

**AITAN - ETXE
TABERNA**

Larramendi, 15
943 55 00 46

ERRIOGUARDA - ENEA

J A T E T X E A

Uztailaren 31n
San Inazio egunean
EGUERDIAN IREKITA

www.errioguardaenea.eus

burriaga kalea, 10 - Tel: (943) 33 02 81

☎ **TAXIAK:** 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 ☎ / **Egunez:** **Odriozola** URNIETA Idiazabal, 18 **943 334014** / **Gauz:** **Castilla** Urbietta, 7 (Hernani) **943 552941**

EGURALDIA **GAUR** Goizean lainoak agertuko dira, baina eguerdi aldera ostarteak zabalduko dira, eta eguzkitsu geratuko da arratsaldean. Temperatura ere, atseginagoa izango da: **Min.16° / Max.23°**

BIHAR Udako ibura berreskuratuko du eguraldiak, bihartik aurrera. Temperaturak gora egingo du, eta eguzkitsu egongo da, egun osoan zehar. Bero egingo du beirri: **Min.16° / Max.26°**

(euskaime)

GAZTEBIZILAGUNAK

Udarako ekintzak, bihartik

Kirolaz gozatzeko zita jarri du GazteBizilagunak taldeak, 17:00etan.

UDARAN ere, zenbait ekintza antolatuko ditu GazteBizilagunak taldeak: mendi irteerak, dantzafusioa, kirola eta perkusio tailerrak. Astero ekintza

banan egingo dute, eta bihar izango da aurrenekoa.

Arratsaldeko 17:00etan jarri dute zita, Atsegindegiko G1 autobus geltokiaren ondoan, eta

kirolaz gozatzeko aukera izango dute, bertaratzen direnek.

Herritar guztiei luzatu diete gonbitea: «animatu eta etorri gurekin ondo pasatzera!». ||

UDALA

«Foru Aldundiak mespretxatu egiten gaitu, Buruntzaldeako herritarrek eta Udalak»

Agerraldia egin zuten Hernani, Andoain eta Usurbilgo udal ordezkariak, salatzeko «Mugikortasun diputatuak eta bere departamenduak izan duten jarrera, Buruntzaldeako autobusen zerbitzua aldatzeko prozesuan».

DONOSTIAN elkartu ziren ostiralean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza nagusian, Hernani, Andoain eta Usurbilgo udal ordezkariak: Luis Intxauspe Hernaniko alkatea, Ainara Rodriguez Andoaingo jarduneko alkatea, eta Xabier Arregi Usurbilgo alkatea. Eta bertan, salatu zuten Marisol Garmendia Mugikortasun diputatuak eta bere departamenduak izan duten jarrera, Buruntzaldeako autobusen zerbitzua aldatzeko prozesuan: «prozesu itxia, gardentasun eta partehartzerik gabekoa izan da».



Luis Intxauspe, Ainara Rodriguez eta Xabier Arregi, agerraldian.

Nabarmendu dute, autobus zerbitzuan aldaketak eta murrizketak egin dituztela, «prozesu osoan herritarren eta udalen iritzia bazterrean utzita. 2017an aurreproiektua idazten hasi zen Aldundia, Udalei eta herritarrei horren berri eman gabe. Orain, zerbitzuaren emakida egin du inori jakinarazi gabe; eta zerbitzuak izango dituen aldaketa eta murrizketen berri ez digu eman oraindik, nahiz eta ahoz zein idatziz eskatu diogun».

«Sinestezina eta onartezina da, erakusten ari diren errespetu falta»

Arregik azaldu zuen, eskualdeko alkateei gutun bat bidali diela Marisol Garmendiak, esanez laster argitaratuko dutela proiektua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, «eta orduan jakingo dugula, zein alegazio kontuan hartu dituzten eta zein ez. Eskatu genion argitaratu aurretik udaloi bidaltzeko; baietz

esan zigun, baina gaur arte. Hitza ez dute bete. Oso garbi utzi dute nork agintzen duen. Sinestezina eta onartezina da, prozesu honetan Foru Aldundia erakusten ari den errespetu falta; errespetu instituzional falta eta herritarrekiko errespetu falta».

Eta gogorarazi zuen, «eskualdeko Udalok eta milaka eta milaka herritarrek», alegazioak aurkeztu zituztela, «ezin-negon eta kezka giroan». Guztira, 5.000 alegazio inguru eta 7.000 sinadura bildu ziren, zerbitzuak ez murriztea eta herritarren iritzia kontuan hartzea eskatuz. «Alegazioak egin bai, baina kontuan hartuko zituztenik eta zeren araberako egingo zuten ez digute inoiz esan. Prozesu itxia izan da, erabat opakoa, eta zirrikituren bat ireki badute, jendar-tearen eta udal batzuen presioagatik izan da».

Rodriguezek, bere aldetik,

azaldu zuen aldaketak egiteko erabiliko zituzten irizpideak eskatu zizkiotela Aldundiari: «irizpide tekniko eta ekonomikoak kontuan hartu zituztela esan ziguten, erabiltzaile kopurua eta errentagarritasun ekonomikoa. Gure ustez, zerbitzu publikoak errentagarritasun ekonomikoaren menpe egotea ez da irizpide egokiena, errentagarritasun sozialak ere pareko garrantzia dauka, eta erakunde publikoek hori ahaztea arduragabea da. Zerbitzu batzuek ez dute bidaiari kopuru handia, baina kenduz gero, gehienetan emakumeak eta adineko pertsonak izaten dira kaltetuenak, ekonomikoki errentagarriak ez direlako».

Eta gaineratu du: «Aldundiak saltzen duen irudi berriaren zutabe dira herritarren partehartzearen aldeko apustua eta gobernantza eredu berria. Prozesu hau horren adibide bada, jai dugu gipuzkoarrok». ||

PALA



Garazi Urdangarin eta Ekiñe Balerdi, saria jasotzen.

Urdangarin eta Balerdi hirugarren, Frontoi-Txikin

Maila ederrean aritu ziren hernaniarrak, Zarautzen, Frontoi-Txikiko txapelketan.

SASOI onean dabilta, Ekiñe Balerdi eta Garazi Urdangarin palista hernaniar gazteak. Tilos 7 Pasan txapela jantzi ondoren, Zarautzen aritu dira orain, Frontoi-Txikiko txapelketan. Baita ederki aritu ere! Hirugarren postua lortu zuten.

CD Hernaniko pala sailetik, azpimarratu dute txapelketak izan zuen maila: «oso nabarmena da, federatuetan ari direnen maila ona, nahiz eta frontoi txiki horretan jokatzek, abilezia haundiak edukitzea eskatzen duen». ||

izan zuten azkeneko hori, oso luze jo zuen, eta oso berdindua izan zen. Azkenean, garai-pena lortu zuten Balerdik eta Urdangarinek (30-27), eta hirugarren postuarekin batera, trofeoa ekarri zuten.

CD Hernaniko pala sailetik, azpimarratu dute txapelketak izan zuen maila: «oso nabarmena da, federatuetan ari direnen maila ona, nahiz eta frontoi txiki horretan jokatzek, abilezia haundiak edukitzea eskatzen duen». ||

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Eskerrak, Kaxko elkartearen izenean

Kronikaren bitartez, gure esker ona helarazi nahi diegu, Kaxkoko auzotar guztiei. Lantaldeari eta kolaboratzaile guztiei, modu batera edo bestera lortu dutenei aurten ere arrakastaz ospatu dezagun Karmen eguneko festa.

Baita omenduei ere, herria-

ri egindako ekarpenagatik egin nahi izan diegun omenaldi xumea jasotzeagatik.

Horregatik guztiagatik, Kaxko elkartearen izenean, eskerriak asko denoi.

Juncal Libertad
Dorronsoro Mocha
Kaxko elkarte
lehendakaria

IRAGARKI MERKEAK

Funtzionamenduan dagoen automekanika tailerra jubilariaozatik alokatzen da, gerora erosteko aukerarekin. Deitu: 943 33 39 28 / 639 538 506

Esperientziadun andreak lan egingo luke adinekoak zaindu edota lagun egiten eta garbitasunean. Orduetgia: goiz: 7:30 - 10:00. Arrats: 3etatik aurrera. Deitu: 654 122 548

Itziarroyo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)